

# Madril-Irun trenbidean beste lehergailu batek egin du eztanda

Argindarreko dorre bat bota zuen merkantzia tren baten gainera

**M**adril-Irun trenbidea sei orduz moztuta egon zen, lehergailu batek eztanda egin eta gero. Renfeko iturriek jakitera eman dutenez, kalte materialak urriak izan dira. Argindarreko dorre baten lurreratzeak makinista bat arinki zauritu zuen.

## BURGOS

Atzo, goizeko bostak pasatxo zirenean, lehergailu batek eztanda egin zuen Madril-Irun trenbidean, Buge-do eta Pancorbo artean, Burgosen. Eztanda ondoz, argindarreko dorre bat erori egin zen, eta Burgo-setik Mirandara zihoan merkantzia trenak jo egin zuen aipatu dorrea. Treneko txoferrak zauri arinak izan zituen, kabinako kristala hautsi bait zen kolpearen eraginez. Gidaria izan da zauritutako bakarra.

Renfe eta Burgo-seko Gobernu Zibileko iturriek jakitera eman dutenez, kalte materialak eskasak eragin ditu eztanda. Iturri hauen arabera ETA litzateke eztanda arduraduna. Atzokoa, aurtengo udaran Espainiako trenbideetan gertatzen den laugarren eztanda izan zen, ETAK mehatxu egin zuenetik.

Eztanda 448,520 kilometroan izan zen eta trenbidea berehala moztu zuten Renfeko arduradunek. Burgos eta Miranda de Ebro arteko trenbidea etenda geratu zen, goizeko hamaikak arte.

Bitartean Renfek, autobusez ba-



RENFEko trenbideetan lehergailuak jarri zituela iragarria zuen ETAK. EFE

liaturik, ibilbide alternatiboak biñatu zituen. Bederatzehun bidaiarik autobusa erabili zuten, eta Burgo-seko Gobernu Zibileko iturriek ziurtatu dutenez, beste mila bostehun bi mila pertsona inguru trenbidea ireki arte itxaron beharra izan zuten.

**BI KILO AMONAL ZITUEN** Lehergailua bi kilo amonalez osatuta zegoen eta argindar dorrearen ondoan jarrita zegoen, Francisco de Celis Burgo-seko Gobernadore Zibilak jakitera eman zuenez. Bere esanetan, leherketa izan zen trenbide zatia atzo bertan miatu zuen Goardia Zibilak eta gaur goizeko zazpietan lan horretan jarraitzeko asmoa zuen.

Eztandak sortutako zarata ez zen handia izan. Buge-doko tren geltokiko langileek adierazi dutenez, en-

tzanda entzun zutenean, ez zioten garrantzirik eman, siziriren bat zela pentsatu zuten, Buge-doko jaiak bait dira egunotan.

Gobernadore zibilak esan zuenez, Renfeko arduradunek ez zuten inolako deialdiriren berri izan, «inork ez bai zuen abisatu». «ETAK egin zuen mehatxua ekarri dit gogora» gaineratu zuen. Atzo gertatutako atentatua Burgo-seko Poliziaren kontra urtebete betetzen zen egun berrean burutu zen. Orduan bonba-kotxe batek Burgo-seko komisaria txikitu zuen.

ETAK abuztuaren hasieran iragarri zuen RENFEko trenbideetan lehergailuak jarri zituela eta hil honetan zehar eztanda egingo dutela. Orduetik hona lau lehergailuk egin dute eztanda. Toledo, Palencia, Valladolid eta Burgo-seko trenbideetan izan dira lau eztanda.

## ETAK bere gain hartu ditu azken hilabeteotako hamasei atentatu

### DONOSTIA

ETA erakunde armatuak bere gain hartu ditu uztaila eta abuztuaren Euskal Herrian, Espainian eta Italian buruturiko hamasei atentatu.

Lehen atentatua uztailearen 21ean egin nahi izan zuen ETAK Bilbon. Polizia espainolaren aurkako bonba-kotxeak huts egin zuen, ordea. Lau egun beranduago, beste bonba-kotxe bat paratu zuen Irungo Goardia Zibilaren koartel etxearen kontra, eta sei guardia zibil zaurituak gertatu ziren leherketaren ondorioz. Egun berean, lehergailu batek eztanda egin zuen Irungo Bar Nuevo-n.

Uztailearen 26an, beste lehergailu batek guztiz triskatu zuen Hondarribiko Miguel 'El Argentinoren' kotxea. Hurrengo egunean, bi polizi espainiar arinki

zauritu zituen Donostian jarritako bonba-kotxeak. Getxon goardia zibil bat hil zen eta beste bat larriki zauritua izan zen hilaren 28an, bonba-kotxez egindako atentatuan. Uztaileak 30 lehergailu batek eztanda egin zuen Donostian.

Abuztuak 2 Felipe Rey Patiño enpresaria eta bere guardia juratua zaurituak gertatu ziren Madril-en, bonba-karta baten ondorioz.

Italian espainiar interesen kontu egin diren atentatuak ere bere gain hartu ditu: Banco Exterior de Españak Milanen duen bulegoaren aurkako eta Erroman turismoa bi agenzia espainolaren aurka abuztuaren 9an izandakoa.

Abuztuak 7 Irunen Francisco Gil Mendoza, ustez droga trafikantzailea zena hil zuen ETAK. RENFEren trenbideetan hainbat lehergailu ere jarri ditu, kalte pertsonalik eragin ez badituzte ere.

## IK-k azken bi asteotako hiru atentatuak bere gain hartu ditu

### A.S. /BAIONA

Iparretarrak erakunde armatuak abuztuaren 1etik 16ra bitartean gertatu ziren hiru atentatu beregain hartu zituen atzo. Ipar Euskal Herriko komunikabideei bidalitako agiri batean, IK-k Basusarriko golfean baliatuak ziren hiru makinak suntsiketaz (abuztuak 1) Miarritzeko Sud Immobilier promotore bulegoaren kontrako ekin-tzaz (abuztuak 11) eta Uztaileko ORPI etxegintza agentziaren aurkako atentatuen (abuztuak 15)

erantzule dela adierazi du. Hiru atentatu horietatik azken biak artezilariek indargabetu zituzten.

IK-k bere atzoko agirian Basusarri golfearen eraikitaz zuten, batez ere, salaketa gogorra egin. Azpimarratuz, lurralde horretan sekulako ekologi sarraskia egiten ari direla. IK-k adierazi zuenez, turismo etxegintzaren aurka ekiten jarraituko du «frantses administrazioak erabakirik hartzen ez duen bitartean, turismo etxegintza xedearen geldiarazteko Ipar Euskal Herri guztian».

## Zutoia Mitxeli behin-behineko askatasuna ukatu diote

### IRUNEA

Zutoia Mitxel foru parlamentariari behin-behineko askatasuna ukatu egin dio Nafarroako Epaitegi Gorenak, aurreko erabakia bertan behera utzita. Jose Antonio Alvarez Caperochipi epaileak duela bi aste milioi bat pezetako (50.000 libera) fidantza eskatu zuen, Mitxelek behin-behineko askatasuna lortzeko, eta irailaren 9tik aurrera euskal parlamentaria aske uzteko agindua eman zuen, egun horretan hasten bait da Nafarroako Parlamentuaren ohizko iharduera.

Nafarroako Epaitegi Gorenaren erabaki horren kontrako errekurtsioa aurkeztu zuen Javier Muñoz fiskalak, Mitxel gartzelan eduki zezaten, eta orain Epaitegi Gorenak, oportetako salaren bitartez, onartu egin du errekurtsioa.

Mitxelen askatasuna ukatzeko honako argudioak erabili dituzte epaileek: irailaren 9a baino lehenago Parlamentuak sesioak egin dituela eta Zutoia Mitxelek horietara joateko modua izan duela eta parlamentariari leporatzen zaioan delituaren «larritasuna».

Zutoia Mitxel iragan otsailean a-



Zutoia Mitxel.

JOXE

txilotu zuten, ETA erakunde armatuari laguntza ematearen akusaziopean. Euskal presoak kargu guztiak ukatu zituen eta Goardia Zibilaren komandantzia torturatua izan zela salatu zuen. Egun, preso dago Carabanchelen, epaiketaren zain. Defentsak irailaren berriro eskatuko du Mitxelen askatasuna eta baita bere epaiketa lehenbailehen egitea, Gorostiza abokatuak atzo jakin erazi zuenez.

## Lerro artean

# Hitzen gaineratik



**G**ipuzkoako diputatu nagusia eta Lurraldearen arteko adostasunarekin Irurtzun-Andoain autobidearen

gatazkan hasi zen fase berria hurbiletik segitzen ari direnak bat datoz «prozesu apasionantea» deitzen. Prozesuko protagonisten eta herritarren artean komunikabideak daude, teoriarik gertatzen ari dena gizarteari kontatzeko. Prozesu horretan, komunikabide gehienek lehenengo unetik uko egin zioten lekuko funtzioa betetzeari (parte izan nahi zuten eta izaten ari dira), horrexegatik zer gertatzen ari den jakin nahirik komunikabideetara jotzen duena nekez asetuko da. Aitzitik, benetan gertatzen ari dena eta berari kontatzen diotenaren artean jauzi handia dagoela erraz sentitu ahal izango du. Komunikabideengan konfidantzarik ez izate hori operazioako protagonista direnek indartu dute, adibidez, EAJ-

tik beste alderdi batzuei prentsak dioenari hainbeste kasu ez egiteko eskatu zaienean. Argi ez esan arren, ondo dakite egunkariak eta beste komunikabideek argitaratzen dutenaren arabera jokatu beharko balute, jai izango luketela eta askotan urrats politikoak emateko paperazko hitzen gaineratik eman beharra dagoela.

**A** dostasun handia izan zen atzo egunkariaren artean abiapuntua bilatzean. *Egin* eta *Deiak* izan ezik, gainontzekoek HBren konpromesua nabarmendu zuten lehen orrialdean. Adostasun hori ez da murrizten HBren jarrera hartze horri garrantzia ematera. Harantzago doa, *El Correo Español* eta *El Diario Vasco* editorialek eta gainontzeko zenbait komentario eta esaldik erakusten dutenez. Diskurtso defentsiboa alde batera utzi dute eta garaile zirenak gaitzaille bihurtu dira, egun gutxiren buruan. HBren ohar horretatik «koalizioaren barne narriadura», «neke ideologiko eta politikoa»

ondorioztatzen du *El Correo Español* editorialak. Are gehiago, orain ETAK «ez du beharrezko gaitasunik ENAMen abangoardian izateko» eta HBko «barne disentsioak egiazkoak dira». Honela laburbiltzen zuen editorilegileak: «ETA eta HB ahul daude». Dagoeneko, «txantaiari amore eman izana» ezabatu da. Jarrera defentsibotik erasotzaile pasatze honek beste alde bat gehiago du: Bilboko aipatu egunkariak honako titularrak zuten artikulu bat argitaratu zuen atzo: «Lurraldearen lur jotzea». Azpitu-luak honakoa gehitzen zuen: «HB eta EKik krisitik gertu jarri dute koordinadora». Herenegun *El Mundok* Inaki Esnaolarekiko elkarrizketaren iritzi kritikoei oihartzun zabala izan dute beste komunikabideetan. *El Correo Español*ek marraztutako ildo oraindik ez dago hain markatuta besteetan, baina denbora kontua izango da.

PELLO URZELAI